

Ariketak 108

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

- I. Lotu lehenengo zutabeko aditzak ondoko zutabeetako sinonimo eta antonimoekin:

ADITZA

gailendu
amore eman
igarri
atontu
kamustu
bizitu
doitu
uztartu
kaltebera
tamalez

Sinonimoa

antolatu
lotu
garaitu
bizkortu
kaltegarri
ondikoz
antzeman
makestu
urritu
etsi

Antonimoa

mesedegarri
askatu
eutsi
ugaritu
zorroztu
porrot egin
moteldu
huts egin
inprobisatu
zorionez

2. Beheko esaldiotan hitz hauen sinonimoak aurkitu eta ordeztu behar dituzu. Ea ondo kokatzen dituzun!

katramila peto-petoa jardule arteragoko
trepetak ezedukian erdietsi
harroin erkidea abaila bizian

- COVID-19 kasuak bata bestearen atzetik agertzen dira, eta sekulako **nahasmena** sortu da.

- Udalak astean egun bat jarri du etxeko traste zahar eta **tramankuluak** zaborretara botatzeko.

- Lehenagoko** igandean izan zen gure herriko mendi lasterketa.

- Pobrezian** bizi direnak ditut une honetan gogoan.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



5. Etxeak **zimendu** onak baditu, ez da jausiko.

6. Esportatzaileen eta beste **eragile** ekonomiko batzuen erregistroan inskribaturik dauden subjektu pasiboek eredu hau erabili behar dute.

7. Gidari guztiek ongi asko dakitenez, **erabateko** negu giroa izan genuen duela astebete.

8. Bakoitzak gure lurzatia daukagu, baina eremu hau **komuna** da.

9. Presakoa zen, eta **lasterka batean** prestatu dute langileentzako jarraibidea.

10. Realak merezitako berdinketa **lortu** du Bartzelonaren aurka.

3. **Egin aditz anaforiko ustela dela esaten da. Kalko okerrak liburuan (72. or.), Juan Gartzia labur azaltzen du nola erabili behar dugun:**

2.2.6. Egin aditz anaforiko ustela

Ez da inolaz ere egokia egin aditza erabiltzea aurrerago aipatu den beste baten ordezkotzat. Kasu honetan, are baldarragoa da kalkoa, zeren erdaraz anaforikoa dena ez baita *hacer* aditz, hari erantsirik doan (*hacer*)-lo izenordaina baizik.

- Esan zuen berak bilduko zuela dena, baina ez du bildu/*egin.
- Edan behar baduzu, edazu/*egizu kontuz.

Zuzenak dira, jakina, beste honako hauek:

- Lan egingo zuela agindu arren, ez zuen **egin**.
- Dibortziatuko zela mehatxatu zuen arren, ez zuen **halakorik** egin.
- Errusiara joango zela esan, eta **hala/horixe** egin zuen.

Behin azalpena irakurrita, azter itzazu honako esaldi hauek, eta zuzendu gaizki daudenak.

1. Ikasiko duela esan du, baina ez du egin.

2. Bukatu behar badu, egin dezala behingoan.

3. Arazoa konponduko dutela agindu dute, baina ez dute egin.

4. Nahi duzunean egin dezakezu, baina egin.

5. Bere buruaz beste egingo zuela esan zuen, eta hala egin zuen.

6. Logela txukunduko duela agindu die gurasoei, baina ez du egin.

7. Osakidetzak esan zuen euskal osasun-zerbitzuan eskuragarri dauden eta lan egin nahi duten erizaintzako langile guztiak kontratatuko zituela, baina ez du egin.

8. Alkateak esan zuen gaizkileen kontra deklaratu zuela, baina ez du halakorik egin.

9. Haserretu behar baduzu, egizu min eman dizutenekin bakarrik.

10. Entrenatzaileak Iker konbokatzen badu, partida jokatzeko egin dezala.

Soluzioak108

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

I. Lotu lehenengo zutabeko aditzak ondoko zutabeetako sinonimo eta antonimoekin:

ADITZA	SINONIMOA	ANTONIMOA
gailendu	garaitu	porrot egin
amore eman	etsi	eutsi
igarri	antzman	huts egin
atundu	antolatu	inprobisatu
kamustu	makestu	zorroztu
bizitu	bizkortu	moteldu
doitu	urritu	ugaritu
uztartu	lotu	askatu
kaltebera	kaltegarri	mesedegarri
tamalez	ondikoz	zorionez

2. Beheko esaldiotan hitz hauen sinonimoak aurkitu eta ordeztu behar dituzu. Ea ondo kokatzen dituzun!

1. COVID-19 kasuak bata bestearen atzetik agertzen dira, eta sekulako **katramila** sortu da.
2. Udalak astean egun bat jarri du etxeko traste zahar eta **trepetak** zaborretara botatzeko.
3. **Arteragoko** igandean izan zen gure herriko mendi lasterketa.
4. **Ezedukian** bizi direnak ditut une honetan gogoan.
5. Etxeak **harroin** onak baditu, ez da jausiko.
6. Esportatzaileen eta beste **jardule** ekonomiko batzuen erregistroan inskribaturik dauden subjektu pa-siboek eredu hau erabili behar dute.
7. Gidari guztiek ongi asko dakitenez, negu giro **peto-pettoa** izan genuen duela astebete.
8. Bakoitzak gure lurzatia daukagu, baina eremu hau **erkidea** da.
9. Presakoa zen, eta **abaila bizian** prestatu dute langileentzako jarraibidea.
10. Realak merezitako berdinketa **erdietsi** du Bartzelonaren aurka.

3. Egin aditz anaforiko ustela dela esaten da. *Kalko okerrak* liburuan (72. or.), Juan Gartzia labur azaltzen du nola erabili behar dugun:

1. Ikasiko duela esan du, baina ez du **ikasi**.
2. Bukatu behar badu, **buka** dezala beingoan.
3. Arazoa konponduko dutela agindu dute, baina ez dute **konpondu**.
4. Nahi duzunean **egin** dezakezu, baina **egin**. ONDO
5. Bere buruaz beste egingo zuela esan zuen, eta **hala** egin zuen. ONDO
6. Logela txukunduko duela agindu die gurasoei, baina ez du **txukundu**.
7. Osakidetzak esan zuen euskal osasun-zerbitzuan eskuragarri dauden eta lan egin nahi duten erizain-tzako langile guztiak kontratatuko zituela, baina ez ditu kontratatu.
8. Alkateak esan zuen gaizkileen kontra deklaratuko zuela, baina ez du **halakorik** egin. ONDO
9. Haserretu behar baduzu, **haserretu** min eman dizutenekin bakarrik.
10. Entrenatzaileak Iker konbokatzen badu, partida jokatzeko **konboka** dezala.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

